

Agurain Herri Programa

2023 – 2027 LEGEALDIA



2023 UDABERRIA

ehbildu

Aurkibidea

1. Gobernantza Demokratikoa.....	3
2. Gizarte eta zaintza politikak.....	5
3. Feminismoa.....	8
4. Sexu eskubideak.....	8
5. Kultura.....	9
6. Euskara.....	11
7. Kirola.....	12
8. Hezkuntza.....	14
9. Ingurumena.....	15
10. Etxebizitza eta hirigintza.....	17
11. Merkataritza eta jarduera ekonomikoak.....	19
12. Udal ogasuna.....	20
13. Langileak eta zerbitzu publikoak.....	21
14. Turismoa.....	21

GOBERNANTZA DEMOKRATIKOA

Gobernantza-eredu demokratiko batean sakondu nahi dugu, eta jauzi bat egin, herritarren parte-hartzea bermatzeko udal-jardueran (hitza eta erabakia):

1. Udal-informazioko baliabide berriak eguneratzea eta sortzea. Garrantzitsua da herritarrek ondo informatuta egotea.
2. Herritarrei arreta zuzena eta pertsonala emateko ordutegia ezartzea.
3. Herritarren partaidetzarako erregelamendua egitea eta onartzea (batzorde informatibo publikoak, herri-kontsultak, eta abar).
4. Tokiko Gobernu Batzarra irekia egingo dugu, udalbatzan ordezkaturik dauden talde politiko guztiek parte har dezaten.
5. Aurrekontu parte-hartzaileak:
 - a. Batzar irekiak egingo ditugu auzoekin.
 - b. Herritarrekin batera araudi bat landuko dugu, herritarren parte-hartzea aurrekontuetan lantzeko.
6. Herritarren kexa, erreklamazio eta iradokizunen jarraipena bermatuko dugu protokolo baten bidez.
7. Batzorde sektorialak sortu eta berraktibatuko ditugu, Aguraingo elkartearen partaidetza eta udal-jardueran duten erabakimena modu ofizialean arautzeko:
 - a. Euskara Kontseiluari erabakitzeke ahalmena emango diogu erabilera planak eta hizkuntza normalkuntzarako barne plana egin eta garatzeko.
 - b. Kultura Kontseilua martxan jarriko dugu berritoki, eta ahalmena emango diogu egunez egun erabakitzeke ahalmena duten barne-planak garatzeko.
 - c. Jai Kontseiluari erabakitzeke ahalmena emango diogu, jai herrikoia eta parte-hartzaileagoak antolatzeke.
 - d. Kirol Kontseilu berri bat sortuko dugu, gure herriaren kirol-eremuaren etorkizuna modu parte-hartzailean diseinatu ahal izateko.
 - e. Hezkuntza Kontseilu berri bat abian jarriko dugu eta toki-mailako hezkuntzarekin lotutako eskumenak emango dizkiogu.
 - f. Gizarte Ekintzako Kontseilua suspertuko dugu, zainketen eta justizia sozialaren sektorean baterako lana dinamizatu, koordinatu eta sustatzeko.

ehbildu

8. Pertsona guztientzako eskubide- eta aukera-berdintasunean oinarritutako kudeaketa feminista bultzatuko dugu.
9. Aguraingo Berdintasun Plana egin eta garatuko dugu.
10. Bizikidetza sustatuko dugu, kultura-nortasuna, adina eta jatorria lotune bihurtuz.
11. Lankidetzaren bidez, gazteen ikuspegia udal-politikan barneratuko dugu.
12. Barne-jarraibide bat egingo dugu, udal-kontratazio publiko guztietan klausula sozialak eta ingurumenarekiko arduratsuak txertatzeko.

GIZARTE ETA ZAINZA POLITIKAK

Bizi dugun krisi demografikoa eta gizartearen zahartze-prozesu bizkorra direla eta, arreta berezia jarri nahi diogu zainketen sektoreak barne hartzen duen guztiari. Hau da, zaintza komunitarioak sustatzea, Aguraingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzua indartzeko neurriak ezartzea, pertsonen autonomia sustatzeko zerbitzuak indartzea (ELZ, CRAD, zaintzaileak zaintzeko prestazioak), babesgabetasun-egoeran dauden familien arreta hobetzea, indarkeria matxistaren aurkako jarduerak eta zerbitzuak sustatzea, haurrak eta nerabeak babesteko zerbitzuak indartzea eta oinarrizko gastuei aurre egiteko prestazio ekonomikoak hobetzeko lan egitea.

Eguneko Arretarako Landa Zentroak (EELZ) eta bere udal instalazioetan astelehenetik ostiralera eskaintzen den jantoki zerbitzuak ez dituzte gaur egun baldintza hoberenak betetzen. Hori dela eta:

13. Asteburuetan eta jaiegunetan janaria etxez etxe banatzeko zerbitzua eskainiko diegu zerbitzuaren erabiltzaileei.
14. Zerbitzua lokal zabalago batera eramateko lan egingo dugu. Lokal hori beheko solairu batean egongo da, eta banaketa egokia izango du jarduerak egiteko.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren (ELZ) eskaria handituz doa urtetik urtera, eta, beraz, adinekoak etxean egotea ahalbidetzen duen zaintzarako funtsezko tresna bihurtu da gaur egun. Zerbitzua Arabako Foru Aldundiaren esku dago, eta hark enpresa pribatuen bidez kanporatu du kudeaketa. Ondorioz, zerbitzua bera eta langileen lan-baldintzak okertu egin dira. Hori dela eta:

15. ELZren egungo kudeatzaileen, gizarte-langileen eta arretan inplikaturako beste taldeen arteko koordinazioa hobetzeko bitartekari lanak egingo ditugu.
16. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua berriz udalaren esku geratzeko lan egingo dugu.

Sallurtegi egoitzari dagokionez, ez du mediku-zerbitzu propiorik, eta osasun-zentroko mediku bat joaten da astean behin egoitzara, osasun-zentroko pazienteak zerbitzurik gabe utzita. Beraz:

17. Arabako Foru Aldundiari eskatuko diogu, Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretua betez, zerbitzu mediko iraunkorra eskain dezala Sallurtegi egoitzan.

Gizarte Hezkuntza eta haur eta gazteen zerbitzuak:

18. Udal-espazio egonkorra egokituko dugu, pribatutasunarekin. Horrela gizarte-hezitzaileek erabili ahal izango dute beraien jardueran.
19. Jolastokiaren kokapena aldatzea baloratuko dugu. Gainera, materiala pixkanaka-pixkanaka berrituko dugu. Psikomotrizitatearen arloa indartuko dugu eta atzean utziko ditugu material plastikoak.
20. Jardueren programazioa eta integrazioa sustatuko ditugu Gazteleku, udaleku eta Agurainen egiten diren aisialdiko jardueretan. Horretarako, begirale espezifikoek figura bultzatuko dugu, eta oztopo arkitektonikorik gabeko espazio egokia bilatuko dugu, erabiltzaile guztiek eskura izateko.

Enplegua Agurainen:

21. Gure udalerrian langabezian dauden ia 350 pertsonen profilari buruzko diagnosi-azterlana bultzatuko dugu, programa bat egin dezaten irteera profesionalerako prestakuntza egokia izateko. Horretarako bitartekotza egingo dugu Eusko Jaurlaritzarekin, hemen martxan jartzeko eskatuz. Gure herritik kanpo eskaintzen diren prestakuntzak saihestu behar ditugu, Agurainen ez izatean jende askok formakuntza baztertzen du eta.
22. Formakuntza Agurainen ezin denean jaso eta kanpora joan behar diren pertsona guztientzako garraiorako dirulaguntzak berreskuratuko ditugu.
23. Eusko Jaurlaritzarekin bitartekari-lanak egingo ditugu, Agurainen Lanbideren Lan Orientazioko Zentroa urte osoan irekita izateko.

Aniztasuna eta bizikidetza:

24. Familia migratzaileei euskara eta gaztelania ikastea erraztuko diegu. Batez ere, gaztelania eta euskara helduentzat eta euskara adingabeentzat.
25. Harreman sozialetarako eta hizkuntzen ikaskuntzarako espazioak sortuko ditugu "Berbalagun" motakoak.
26. Ikuspegiren 2019-2022 aldirako Bizikidetza eta Aniztasun Plana eguneratu eta ezarriko dugu. Plan horren osagarri izango da 2013an gauzatutako Bizikidetza Hobetzeko Parte-hartze Prozesua, urte hauetan

ia ezer egin ez dena, migratzaileen eta bertakoen arteko harremanak eta inklusioa bultzatzeko.

Larrialdietarako udal bizitegi-baliabideak:

27. Gotzaindegiarekin hitzarmen bat egitea sustatuko dugu, premiaz behar izanez gero, abade-etxean dauzkaten bi etxebizitzak erabili ahal izateko.

Osasun mentala:

28. Eusko Jaurlaritzarekin bitartekari lana egingo dugu Agurainen psikiatria-zerbitzu iraunkor bat eskatzeko, prozesu terapeutikoen jarraipen egokia egiteko leku eta maiztasun egokiekin.

Indarkeria matxista

29. Eraso matxisten aurreko protokoloa berritu eta hobetuko dugu, eraso matxista jasaten dutenei ahalik eta erantzunik onena emateko.

30. Mugimendu feministarekiko koordinazioa hobetuko dugu

FEMINISMOA

Feminismoa emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasuna eta aukera-berdintasuna bilatzen duen gizarte-mugimendua da, pertsona guztien arteko gizarte-justizia bilatzeko.

Erakunde publikoak, adierazpen eta ekintza puntualez haratago, Berdintasuna eta justizia horren bermatzaile dira, eta horretarako, tokiko mugimendu feministekin elkarlanean aritu behar dira. Horregatik:

31. Aguraingo mugimendu feministarekin modu estuan elkar lanean arituko gara.
32. Udal jarduera guztietan sexismoa baztertzeko formakuntzak sustatuko ditugu: formakuntza pertsonala udal langileei eta politikariei, klubei, ikastaroetako irakasleei,... (feminismoei buruzko ezagutza eta sentsibilizazioa, hizkuntza inklusiboa erabiltzea ekintza, testu eta harreman pertsonaletan, genero ikuspegiaren zeharkakotasuna eta udal arlo guztietako Berdintasun Zerbitzuarekin batera lan egitea)

SEXU ESKUBIDEAK

18 dira NBEk eta Nazioarteko Itunek jasotzen dituzten eskubide-sexualak, besteak beste:

- Osotasun fisiko, psikiko eta sozialerako eskubidea.
- Sexualitatean jarduteko askatasuna: aisialdikoak, komunikaziokoak, ugalketakoa.
- Lehenetsun sexualitateari buruzko pertsonalak errespetatzea.
- Ugalketaren aukera errespetatzea.
- Bakoitzak, bere burua, gizon gisa, emakume gisa eta sexudun gisa aitortzea eta onartzea.
- Sexu eta genero Berdintasuna.
- Autoestima, autobalorazioa eta sexualitatearen inguruan erabaki egokiak hartzeko autonomia indartzea.
- Orientazio sexualaren adierazpen eta erabilera libre.

ehbildu

- Sexualitateari buruzko informazio argia, egokia eta zientifikoa jasotzeko eskubidea.

Pertsona guztien eskubideak betetzen direla ziurtatuko dugu, eta horretarako:

33. Sexu aniztasunaren inguru, sentsibilizazio kanpainak egingo ditugu.
34. Diskriminazioaren aurrean, neurriak hartuko ditugu.
35. Gure udalerriko errealitateari buruz hausnartzeko eta hobetzeko neurriak hartzeko, eremu parte-hartzaileak sustatuko ditugu.
36. Sexualitateei aholkularitza eta arreta emateko zerbitzu bat jarriko dugu martxan, pertsona orok bere sexualitatea modu aske eta positiboan bizitzeko behar duen informazioa, arreta eta laguntza izan dezan.

KULTURA

Kultura anitzaren ikuspegitik, euskal kultura oinarri hartuta, pertsona guztientzako programazio irekia eta askotarikoa sortzeko beharra ikusten dugu. Agurainek dituen artisten presentzia kalera ateratzea sustatuko dugu, beren sormenarekin ezagutzera emateko eta gozatzeko. Bestalde, jai eredu herrikoia, euskalduna, parekidea eta parte-hartzailea sustatuko dugu.

37. Eraikin publikoak aztertu eta berrantolatuko ditugu kultura-jarduera ezberdinak gauzatu ahal izateko eta irisgarritasun-neurri egokiak bermatuz.
38. Urte osoko kultura-eskaintza handituko dugu, kultura-diziplinen eskaintza zabalago bat sustatuz.
39. Harresiko besaulkiak berritzea baloratuko dugu, bai eta aretoaren tamaina erabileraren arabera aldatzeko aukera egotea ere.

40. Sarrerak aldeztu aurretik online saltzeko sistema bat ezarriko dugu.
41. Beka-sistema bat planteatuko dugu gazteei eta kultura-sormenari begira.
42. Jaiei Kontseilua arautuko dugu eta eskumen propioak emango dizkiogu.
43. Udal artxibo kultural bat sortuko dugu.
44. Liburutegiaren ordutegia berrikusiko dugu, eskaerara eta beharretara egokitzeko.
45. Ikasgelak jarriko ditugu eskuragarri urte osoan zehar eta ordutegi zabalagoan.
46. Musika Eskolaren egoera sakon aztertuko dugu. Erabiltzaileek eta langileek beren jardueretan aurrera egiteko behar duten autonomia eta antolaketa bermatuz.
47. Kultur talde bakoitzarekin egindako hitzarmenak errepasatu eta eguneratuko ditugu.
48. Elkarrekin eskatuko diegu berdintasuna, hizkuntza-normalizazioa, kultura-aniztasuna, inklusioa eta parte-hartzea bezalako balioen transmisioa.
49. Kultura Kontseilua eratuko dugu, eta eskumenak emango zaizkio programazioaren, zerbitzuen eta eraikinen kudeaketaren arloan:
 - a. Herriak dituen espazioak eta gelak garbitu, prestatu eta berrantolatuko ditugu, elkarrekin beren jarduerak egin ahal izan ditzaten.
 - b. Hainbat tailer sustatzeko aukera landuko dugu.
 - c. Elkarrekin guztiek Udalarekin batera antolatutako programazioa egingo da, eta horrekin lotuta, kartelak eta egutegi bateratuak.
 - d. Kulturarekin zerikusia duen guztia zabaltzeko leku fisiko zehatz bat bilatuko dugu.

- e. Webguneaz gain, eskaintza zabaltzeko egokitzat jotzen diren sareak erabiliko ditugu: Twitter, Facebook, Instagram, Telegram eta WhatsApp.

EUSKARA

Euskara dugu berezko hizkuntza, gure euskal kultura eta nortasuna normalizatzeko funtsezko osagarria. Euskararen erabilera eta trinkotasuna berreskuratu eta babestu behar dugu eta horretan, arnas guneek garrantzi handia dute.

Ez dugu ahaztu behar gure umeak etorkizunaren funtsezko zutabea eta euskarak iraun dezan bermea direla, horregatik, haien euskaldun izate kontzientzian eta euskaraz bizitzeko nahian, herri gogoan beraz, sakonduko dugu.

47. Euskara kontseilua arautuko dugu eta erabakitze eskumenak emango dizkiogu:

- f. Euskara sustatzeko ekimenak proposatzea eta gauzatzea.
- g. Eragileen arteko agenda bateratua egitea.
- h. Euskararekin zerikusia duten lanen kontratazioan parte hartzea.
- i. Euskararekin zerikusia duten erabakietan parte hartzea.

48. Lanaldi osoko euskara-teknikari bat kontratatuko dugu, udalerriko egunerokotasunean are gehiago eragiteko asmoarekin.

49. Euskara Komunitatearekiko harremana berreskuratuko dugu.

50. Barne-plana eta erabilera-planak garatuko ditugu.

51. Udalak gainerako erakundeekiko harremanak euskaraz izatea bermatuko dugu.

52. Haur eta gazteentzako aisialdi eskaintza osoa euskaraz izatea bermatuko dugu. Horretarako:

ehbildu

- j. Erabilera sustatzeko plangintzan eta abiaraztean sakonduko dugu, eta monitoreentzako prestakuntzak eskainiko dira.
- k. Sari-sistema bat jarriko dugu abian, kirol-taldeek eta -elkarteek euskararen normalizazioan egiten duten lana bermatzeko eta indartzeko.
- l. Udal eskaintza emango duten langileak euskaldunak izango dira: musika eskola, igeriketa, jolastokia, udalekuak, gaztelekua, liburutegia ...

53. Gainerako kultura- eta aisialdi-eskaintza euskaraz izatea bermatuko dugu, udalerriko euskararen ezagutza-tasaren kopuru berean gutxienez.

54. Euskara doakotasunez ikasi ahal izatea bermatuko dugu.

55. Udalarekin harremanak euskaraz izateko eskubidea bermatuko dugu. Lehen hitza euskaraz, administrazio-prozedura osoa euskaraz garatzeko eskubidea, udal-zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubidea.

KIROLA

Jarduera publiko baten ikuspuntutik eta lehiakortasunetik haratago, kirola osasunarekin, aisialdiarekin, ongi pasatzearekin, naturarekiko eta beste pertsonetik harremanarekin erabat lotuta dago. Horregatik, eta kirola herritar guztiei zabaldu behar zaienez, herri honen beharrei erantzun dieten azpiegiturak eraikitzeke premia dago. Horretarako, herritarren eta klubaren parte-hartzea ezinbestekoa dela ikusten dugu.

Bestalde, umeei lanean aritzen diren elkarte eta klubak, kirolaren bitartez hainbat balore transmititu eta lantzen direnez, hein handi batean umeen hezitzaile ere badira. Hori dela eta, beharrezkoa ikusten dugu lankidetzan aritzea berdintasuna, euskara, inklusioa, kultura-aniztasuna eta parte-hartzea bezalako balioak transmiti ditzaten, kirol-jardueran bermatuta egon daitezen.

56. Lehenengo fase batean gaur egungo kirol instalakuntzak zaharberritu eta hobetuko ditugu.

57. Bigarren fase batean azpiegitura berrien lanak abiatuko ditugu, Agurainek dituen beharretara egokituko direnak. Horretarako, erabiltzaile eta klubekin adostez gain erabiltzen ez dituztenen arrazoiak ere ezagutuko ditugu.
- 58.. Klub bakoitzarekin egindako hitzarmenak errepasatu eta eguneratuko ditugu.
59. Klubei eskatuko diegu eta jarraipena egingo diegu, berdintasuna, hizkuntza-normalizazioa, inklusioa, kultura-aniztasuna eta parte-hartzea bezalako balioak transmiti ditzaten.
60. Kirol aniztasuna bultzatuko dugu, lehiaketa 8 urtera arte atzeratzea sustatuz.
61. Kirol inklusiboa sustatuko dugu, gaitasun ezberdinetako haur guztiei aukerak bermatzeko eta emateko.
62. Kirolean emakumearen presentzia eta talde mistoak bultzatuko dugu.
63. Kirol Kontseilu bat eratuko dugu, eta eskumenak emango dizkiogu programazioaren, zerbitzuen eta eraikinen kudeaketaren arloan:
 - a. Kirol-plan integrala egitea.
 - b. Kontratazio-irizpideak proposatzea eraikin publikoen garbiketa, kirol-jarduerak eta abar kudeatzeko.
 - c. Entrenatzeko eta partidak jokatzeko agenda bateratua prestatzea.
 - d. Kartel bateratuak egitea eta udalerrian zabaltzeko espazio fisikoak eta sare sozialak erabiltzea.

HEZKUNTZA

Aldaketa garaia dugu eta hezkuntza funtsezko oinarria da eraldaketarako. Mundu honen etorkizuna gure seme alaben heziketaren menpe dago hein handi batean eta hezkuntza bizitzaren dimentsio guztietara hedatzen den prozesua da. Gainera, hezkuntza momentu berezian dago eta fase berri bat irekitzeko beharra eta gogoia sumatzen da.

Hauengatik guztiengatik, funtsezkoa ikusten dugu, alde batetik, hezkuntza formalaren eta ez formalaren arteko uztarketa bat egotea. Honi lotuta, ezinbestekotzat jotzen dugu haurren kultura aitortzea, errespetatzea eta haiekin lan egitea. Bestaldetik, arazo edo erronkak gertutik kudeatzen badira aukera gehiago izango ditugu irtenbideak identifikatu eta hauei arrakastaz ekiteko.

64. Hezkuntza Kontseilua osatu eta arautu eta erabakitzeko eskumenak emango dizkiogu:

- a. Udalaren eta ikastetxeen arteko koordinazioa.
- b. Ikastetxeetan gure haur eta gazteei zer hezkuntza mota eskaini nahi diegun adostea. Ditugun erronkak gainditzeko urratsak ematea: curriculuma, familia berriak...
- c. Mantentze lanetan lehentasunak ezartzea.
- d. Ikastetxeetako patioak natura-gune, hezkuntza-gune eta hezkidetza-gune gisa birpentsatzea eta proiektuak faseka gauzatzea.
- e. Hezkuntza-erakuntza guztietan energia berriztagarrien erabilera ezartzeko proiektuak aztertzea.
- f. Jantokia hezkuntza-espazio gisa ulertzen dugu. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu haien baldintzak duintzea eta gure ama lurrarekin eta gizarte-egoerarekin harremanetan jartzea. Horregatik, tokiko jantokiak km0 bihurtzeko aukerari buruz eztabaidatzea proposatuko dugu, eskualdeko nekazaritzarekin lankidetzan.
- g. Hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko lankidetzak.

65. Proiektu benetan parte hartzaileak eramango ditugu aurrera, non haurrak protagonista izango diren eta beren aisia eta bizi nahi duten herria erabaki ahal izango duten.

INGURUMENA

Gure ingurune naturalak eskaintzen dituen baliabideak zaindu eta zuzenean kudeatu behar ditugu. Ahalegin guztiak egingo ditugu ingurumen trantsizio justua eta begirunetsurantz abiatzeko.

Guztion artean hondakinen kudeaketan aurreratu behar dugu eta horrela Agurain hobetu ingurumen, ekonomian eta gizarte arloan.

Orain arte egin dugun moduan, inposatu nahi dizkiguten makro azpiegituren kontra (AHT, goi-tentsio lineak...) jarraitu behar dugu borrokatzen

Guztion artean ahalegin kolektiboa egin dezagun!!!

66. Langile kopurua handituz, ingurumeneko udal zerbitzua indartuko dugu
67. Kontratazio publikoan ingurumen baldintza eta klausulak ezarriko ditugu
68. Industria eremuko isurketa kontrolatzeko dagoen udal-ordenantza eguneratuko dugu eta gure industrialdean hondakin ikuskatzeko plana onartuko dugu
69. Aguraingo ibai eta errekek (Zaraeta, Zadorra, Egileor, el Alivio eta Santa Barbara) garbitzeko plana jorratuko dugu baita inguruetakoa ere.
70. Berdeguneen mantentze- eta garbiketa-lanak kontratatzeko baldintzak berrikusiko ditugu. Pedroko, Galzar, "Puente Rojo", Hilerriko bidea eta "Los Silos" -ko garbiketa plan espezifikoak landuko dugu
71. Deskontaminazio lanak planifikatzeko, Udalerrian dauden lur kutsatuei buruzko diagnostiko bat egingo dugu.
72. Udal instalazioetan energia kontsumoa murrizteko berariazko plana egingo dugu. Era berean, Aguraingo Udalaren kontsumo-beharrak

asetzeko adina energia elektriko berriztagarri sortzeko plangintza ezarriko dugu. Horretarako:

- a. Bai igerileku estalietan bai erretiratuen egoitzan, gaur egun dauden gasoliozko galdarak kenduko ditugu eta biomasako galdarekin ordezkatzeko ditugu
- b. Eraikin publiko guztietan argiteria publikoa LED teknologiarara aldatzeko urratsak eman ditugu.
- c. Potentzia- eta elektrizitate-kontratuak eguneratuko ditugu, kontsumo eraginkorragoa eta jatorri berriztagarria baino ez duena lortzeko.
- d. Udal eraikinetako isolamendua hobetuko dugu SATE sistema erabiliz eta leihoak aldatuz.
- e. Energia berriztagarrien sistemen autokontsumo partekatuko instalazioak jarriko ditugu martxan (geotermia, fotovoltaikoa, eolikoa, eta abar), energia-premia publikoak asetzeko.

73. Energia kudeaketan herri ekimena piztuko dugu, tokiko energia komunitateak sortzen lagunduz. Honekin batera interesatuta dauden pertsona guztientzat ikastaroak antolatuko ditugu.

74. 2014an Aguraingo hondakinen kudeaketari buruz EHUK proposatu zituen bai ikuskaritza bai neurriak eguneratuko ditugu.

75. Ekonomia zirkularreko plan bat egingo dugu udal jantokietan sortutako hondakinak aprobetxatzeko; hondakin horien konpostaje komunitarioko eta hegazti-konposteko guneak martxan jarri eta erabilera sustatuz. Zirkulua itxiko genuke Aguraingo baratze publiko komunitario eta belaunaldien artekoek sortutako konposta erabiliz.

76. Garbigunea berrantolatuko dugu: prestakuntzarako eta berrerabiltzeko ekintzak garatzeko espazio itxi bat eta berrerabil daitezkeen elementuekin plataforma bat sortuko dugu.

77. Urbideri eskatuko diogu Aguraingo eta Ergoienetako uraren hiri-zikloaren kudeaketa berriz ere Udalera bideratu dezala eta gure eskumena berreskuratzeko kudeaketa hasiko dugu:

- a. Urbideri eskatuko diogu, Aguraingo uraren kudeaketari eusten dion bitartean...:

ehbildu

- i.Aguraingo edateko uraren hornidura- eta banaketa-sarean dauden arazoak konpontzeko jardueren kronograma bat egin (fibrozementua, ur- galerak, "lapurretak", etab.).
- ii. ...Aguraingo euri-uren eta hondakin-uren saneamendu-sarea bereiztea (Litutxipi, San Martin, Alde Zaharra eta abar ...)

- 78. Motorizatu gabeko bide seguruak sortuko ditugu pertsonentzat Agurain eta Ergoienetan zehar.
- 79. Agurainen mugikortasunari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egingo ditugu, batez ere udalerriko familiei eta ikastetxeei zuzenduta.
- 80. Mugikortasunerako tresna digital bat jarriko dugu martxan, garraio-eskaintza publiko osoa izateko eta garraio pribatuak partekatu ahal izateko.
- 81. "Sotos y Vargas" eta "Monte Udala" basoen ustiapenerako indarrean dauden planak eguneratu eta gauzatuko ditugu.

ETXEBIZITZA ETA HIRIGINTZA

Hirigintza gure herria antolatzeko dugun baliabide bat da, eta kontuan hartzen ditu herritarren etxebizitza-beharrak, azpiegiturak, industria, lehen sektorea, elkarbizitzarako erreferentziazko espazio publikoak, hiri-mugikortasuna eta gizarte-kohesioa, oinezkoen lehentasuna, merkataritza txikiak ...

Hirigintza herritarrei hurbiltzeko, udal-jarduerak erabat gardena izan behar du hirigintza-garapenerako prozesuetan, horien kontrol soziala ahalbidetuz eta espekulazioa saihestuz.

Pertsona orok du etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea. Eskubide hori gauzatu ahal izateko, beharrezkoa da politika publikoek haren alde esku hartzea.

Gure etxebizitzaren jabetza pribatuaren kultura, azken 60 urteetan sustatua, alokairuaren kulturara igarotzeak gizartearen kontzientziazteko prozesu bat eskatzen du. Horrela, pixkanaka, eredu berri baterantz egin behar da, eta honako aukera hauei emango zaie lehentasuna, eskuragarri dauden etxebizitzaren kopurua handitze aldera: etxebizitza hutsak erabiltzea, alokairu publikoa sustatzea eta birgaitzea.

82. Etxebizitza-eskatzaileen errolda bat sortuko dugu.
83. Bustamante Jauregiaren proiektua berreskuratuko dugu alokairu sozialeko 11 etxebizitza berri sortzeko.
84. Hirigune Historikoa Biziberritzeko kudeaketa-organo bat sortzea bultzatuko dugu, eta konponbideak bilatuko ditugu lokal eta etxe hutsetarako, eraikin publikoei bizia emateko (hiltegi zaharra, hiltegia), merkataritzarako plana ...
85. Euskal Herria Plaza konpontzen lagunduko diegu herritarrei, dauden arazoak behin betiko konpontzeko eta funtzionalagoa izan dadin aguraindar guztien gozamenerako.
86. Apategi berritu beharreko auzoa da, eta, horregatik, auzotarrekin aztertuko dugu berritzea.
87. Legegintzaldi honek behin betiko konponbidearen legegintzaldia izan behar du Curtidos Fabrikaren ingurunearentzat, betiere interes publikoak defendatzen dituen kudeaketarekin, eraikuntza- eta finantza-enpresen interesaren aurrean.
88. Haurrentzako jolasgune berriak sortuko ditugu, gaur egungoen ordezeko elementu berriekin.
89. Auzo bakoitzerako jarduketa-plan espezifikoak egingo ditugu: espazio publikotako mantentze-lan, berdeguneak, garbiketa, jarduketak eta ibaien garbiketa, uholdeak saihesteko eta gure ibaiak egoera onean izateko.
90. Ergoierna bakoitzerako jarduera-plan espezifikoak ere martxan jarriko ditugu (Opakua, Arrizala, Alangua eta Egileor), eta organo bat sortuko dugu, egungo beharrak eta etorkizunean agertuko direnak batera lantzeko..

MERKATARITZA ETA JARDUERA EKONOMIKOAK

Ezinbestekoa da industria-politikekiko sentiberak diren esparruen arteko koordinazioa egotea: fiskalitatea, finantzaketa, gaitutako pertsonen prestakuntza, azpiegitura lehiakorrak...

Oso beharrezkoa da gure industria-sektorea jasaten ari den beherakada nabarmenari buelta ematea, eta, horretarako, industria-politika eraginkorra jarri behar da abian, eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko akordioetatik abiatuta.

Tokiko saltokiak, enpresak, enpresa-sortzaileak eta lehen sektorea dira herri baten jarduera ekonomikoaren motorra. Horregatik, jarduera hori erraztuko duten neurriak bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu.

91. Jarduera ekonomikoen mahai bat sortuko dugu Aguraingo hainbat sektoretako enpresen eta Udalaren artean, interes orokorretik lankidetzak estuagoa bultzatzeko.
92. Merkataritza Biziberritzeko 2012ko Plan Berezia eguneratuko dugu.
93. Hirigune Historikorako merkataritza suspertzeko plan bat garatuko dugu, saltokiekin lankidetzan, eta lankidetzak publiko-pribatua sustatuko dugu.
94. KulturBira zirkuitua berraktibatu eta aldatuko dugu saltokiekin batera, tokiko merkataritza bultzatzeko.
95. Alde Zaharra merkataritzarako gune atsegina bihurtuko dugu, saltokiak eta bertako produktuak ikusarazteko, espazioak edertzeko eta ohiko salmentarako aukera desberdinak sortzeko.
96. Eskualdeko tokiko produktuak saltzeko bide berriak irekitzea bultzatuko dugu Agurainen, Lautadako Landa Garapenerako Elkartearekin lankidetzan.
97. Lehen sektoreari dagokionez, nekazaritza-bideen garbiketak eta sastrakak kentzea berreskuratuko dugu.

UDAL OGASUNA

Gizarteak sortu eta administrazioak kudeatzen dituen baliabideak biltzerakoan, unibertsaltasuna, ekitatea, progresibitatea, berdintasuna, nahikotasuna eta gardentasuna izango dira lortu nahi dugun zerga-politikaren oinarriak.

Helburu horiek, berdintasun-printzipioari jarraiki, euskal administrazio guztien arteko harremanetan ere eragin behar dute.

Gure aurrekontu-politika argitasunean eta nahikotasunean, genero-ikuspegian, gardentasunean, eraginkortasunean eta parte-hartzean oinarrituko da, lehentasuna pertsonak izango direlarik.

Aurrekontuak pertsonengan oinarrituta eraiki nahi ditugu, pertsona horiek garapen ekonomiko bidezkoa eta iraunkorra bultzatzeko.

98. Egungo tasa eta prezio publikoen ordenantzak ikuskatuko ditugu, zerbitzu publiko guztiak berrikusteko.
99. Udal zerga eta tasen progresibitatean sakonduko dugu, herritarren errentaren arabera hobariak aplikatuz.
100. Udaletxera iristen diren faktura guztiak gehienez ere hilabeteko epean ordainduko dira.
101. Iruzur fiskalari aurre egiteko, milioi bat eurotik gorako fakturazioa duten enpresetan ikuskarpen fiskalak berreskuratuko ditugu.
102. Udal-aurrekontuak modu parte-hartzailean egingo ditugu herritar eta gizarte-eragileekin.
103. Aguraindarren erabakiaren esku jarriko dugu urteko 100.000 euroko inbertsioko partida bat, prozesu guztiz garden baten bidez.

LANGILEAK ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

Herri baten duintasuna, osatzen duten pertsonen duintasunean oinarritzen da, eta, zentzu horretan, jendearen bizitza hobetuko duten kalitatezko zerbitzu publikoak eraikitzea eta eskaintzea da politika publikoen lehen betebeharra, funtsezkoena.

Eta hori guztia, sektore publikoko langileekin batera lan eginez, haien lana duinduz eta lan-baldintzak hobetuz.

104. Zerbitzuen kalitatean eragina izan duten Aguraingo zerbitzu publikoen murrizketak lehengoratu ditugu (hondakinen bilketa, eraikin publikoen garbiketa, bide-garbiketa, garbigunea eta abar ...).
105. Ahal den neurrian, gaur egun azpikontrataturik dauden zerbitzuak publikifikatzeko urratsak emango ditugu.

TURISMOA

Gure eskaintza turistikoa gauzatzeko, Agurain ezagutarazi behar dugu, nondik gatozen, nor garen eta nora joan nahi dugun.

Garrantzitsua da barne-turismoa bultzatzea, geure ingurua ezagutzeko eskaintzak egiteko aukera aparta dugulako eta barne-turismo hori gure ekonomiarako oso baliagarria izan daitekeelako.

106. Autokarabanen eremuko instalazioen mantentze-lanak eta egokitzapena hobetuko ditugu.
107. Udal aterpetxeko instalazioak hobetuko ditugu eta erabilera berriak emango dizkiogu.
108. Agurainen turismo jasangarria sustatzeko plan bat egingo dugu, eskualdeko gainerako udalekin lankidetzan.
109. Udalerriko eta eskualdeko baliabide arkitektoniko, natural, historiko eta kulturei balioa emateko ekimen berriak aktibatuko ditugu.